

BELAUNALDI ARTEKO TRUKAKETA MIZPIRUALDE EGOITZAN

Lekua:	Bergara (Gipuzkoa)
Modalitatea:	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa
Helburua:	Animazio-ekintzak egitea hirugarren adinekoentzako egoitza batean
Egunak:	Uztailaren 30etik abuztuaren 13ra
Adina:	18-26 urte
Plaza-Kopurua:	20
Mota:	Estatukoa
Hizkuntza:	Gaztelania eta euskara

Bergara Gipuzkoako mendebaldeko ertzean dago, Debagoiena izeneko eskualdearen barruan.

Gipuzkoako bigarren udalerria da eremu-zabaleran (77,05 km²), eta komunikabide-ardatz garrantzitsu batean kokatuta dago: ordubete baino gutxiago Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetara (Donostia, Bilbo eta Gasteiz). Gainera, kostaldeko Deba eta Getaria herri ederretatik 30 km baino ez dago.




Informazio gehiago:

Bergarako Udala: <http://www.bergara.eus/eu>

AUZOLANDEGIAREN DESKRIBAPENA

Udalak bertako herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen artean, aipa dezagun hirugarren adinekoentzako “Mizpirualde” egoitza, Bergarako bertako eta inguruko herrietako 100 lagunetik gora hartzen dituen. Aurreko zazpi urteetan egin den auzolandegi honen bitartez (2017koa zortzigarrena izango da), gazteen eta adinekoen arteko harremanak estutu nahi dira esperientziak elkartrukatzuz.



Egoitzako toki ezberdinetan gazteak egoteak alderdi positiboak pizten ditu bertako erabiltzaileen artean, eta garrantzitsuenetako bat errutina etetea da. Auzolandegietako parte-hartzaileekiko elkarrizketak eta euren presentzia hutsak emozio positiboak sorrarazten dituzte, eta horrela, adinekoen aldartea hobetu eta alaitasuna eta ongizatea pizten dira. Inguruko adinekoak gizarteratzeko eta egoiliarren narriadura kognitiboa moteltzeko ekimen ona da.

Litezkeen jarduerak (aurrerago zehaztuko da programa):

- Psikomotrizitate-jarduerak.
- Adindunei prentsa irakurtzen laguntzea.
- Haiekin kartetan, partxis, domino, eta abarretan egitea.
- Ibilaldietan eta paseoan laguntzea.
- Aisialdi eta jolas jarduerak, jaiak eta taldekako jolasak antolatzea.
- Egoiliarren arteko harremanak estutzeko jarduerak prestatzea eta kanpoko munduarekin duten kontaktua areagotzea.



Gazteak taldeka banatuko dira, hartara egoiliar guztiekin lan egin ahal izateko, autonomoak direnekin, mendekotasunen bat dutenekin eta mendekotasun handia dutenekin. Garrantzitsua da

adieraztea auzolandegiko boluntarioek egoitzako animazio-taldeko profesionalen laguntza eta psikologoek, okupazio-monitoreen zein gainerako langileen orientabideak izango dituztela uneoro.

ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, auzolandegiko partaideen eta auzolandegia hartuko duen komunitatearen arteko harremanak sendotzeko eta lanak garatuko diren ingurunea hobeto ezagutzeko. Bestalde, Euskadiko kultura eta ohiturak ezagutzeko lagungarriak izango dira.

Txangoak, bisita kulturalak Euskadiko hiri nagusietara eta kostaldera, kirol-ekintzak, jolasak... antolatuko dira. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

Programa aurrerago zehaztuko da programa. Animazio taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak.

ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- | | |
|---|--------------------------------|
| ➤ Lo-zakua (ez dago izararik) | ➤ Kapela eguzkitarako |
| ➤ Burkoa (behar baduzu) | ➤ Eguzkitako krema |
| ➤ Garbitasun pertsonaleko artikuluak | ➤ Eguzkitako betaurrekoak |
| ➤ Dutxarako eta igerilekurako toallak | ➤ Bainujantzia |
| ➤ Berokiak eta euritako arropak | ➤ Txankletak |
| ➤ Mendiko oinetakoak eta kirola egitekoak | ➤ Motxila txikia txangoetarako |

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

- NAN edo atzerritzar-txartela edo pasaporteak.
- Osasun-txartel indibiduala

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: "Mizpirualde" zaharren egoitza (Madalena enparantza, 1), Bergarako herrigunean.

Bergara Euskadiko hiru hiriburuen erdibidean dago: Vitoria-Gasteiztik 45 km-ra, Bilbotik 59ra eta Donostiatik 61era.

Ostatua: Bergarako **San Martin Agirre** ikastetxean.

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Auzolandegiaren lehen egunean, **Bergarako Udaletxean, arratsaldeko 18:00etan**, Martin Agirre Deuna plaza, 1. Ordu horretarako iritsi ezin denak (betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio),

aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

NOLA HELDU AUZOLANDEGIRA

Bergararen (Gipuzkoa) kokapen-map

Bergarara iristeko AP1 autopista eta GI-627 errepideak dira lotura nagusiak.

N-1 errepidetik abiatuz gero, GI-632 errepidetik iritsi behar da.

Autobusez:

Bilbotik, Vitoria-Gasteiztik, Donostiatik eta Iruñetik: **PESA autobusak** (Bergara, Ibargarai kalean jaitsi).

Ordutegiaren kontsulta: www.pesa.net

Bezeroaren arretarako telefonoa: ☎ **900 12 14 00** / atencionclientes@pesa.net

AUZOLANDEGIAREN AMAIERA

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00ak eta 10:00ak bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak partaide bakoitzari istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguruia egingo dio.

Hala ere, gazte bakoitzak bere **osasun-txartel indibiduala** ekarri beharko du auzolandegira.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA E-POSTA

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel.: **945 01 95 01 – 945 01 95 36**
- E-posta: gazteria-auzolandegiak@euskadi.eus

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehen, auzolandegietako arauak ezagutzea komeni da. Ikusi www.gazteukera.euskadi.eus webgunean (Auzolandegiak – Ezaugarriak, kuotak eta arauak).

PLAZARI UKO EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEKO ESKATZEA

Informazio guztia www.gazteukera.euskadi.eus webgunean dago (ikusi Auzolandegiak- Plazari uko egitea eta ordaindutako kuotaren itzulketa eskatzea izeneko atalean).